

IKASLEEN TXOKOA 112. ZENBAKIA

Hernani BHI

BATXILERGOA

Poza bidelagun

Gizakia betidanik bi gauzen bila ibili izan da. Lehenengoa munduko izaki guztiekin partekatzen dugu, eta hori da bizirautea. Bigarrena, berriz, ez da dirua, ez, ezta fama ere, ez, poztasuna baizik.

Aristotelesek esaten zuen beza-la, zoriontasuna da gizaki guz-tion helburu. Pentsa ezazu zure nahi guztietan eta konturatu-ko zara zure nahi guzti horien ibaia zoriontasunean bukatzen dela. Esaterako, auto modelo berri baten bila bazabiltza, be-netan ez duzu autoaren materia bera nahi, baizik eta hark eragi-ten zaituen sentimendua, poz-tasuna; huraz gozatzea, alegia.

Eta enpresek hori oso argi dute, eta haien onurarako era-biliko dute. Guztiok dakigu be-raien estrategia: gu haien ob-jektu materialerik maitemintzea, horrela sinestartzeko objektu eta tramankulu horien bidez bi-zi-poza lortuko dugula. Horreta-rako, batez ere, iragarkien bidez, “trend” edo “moda” berriak sor-tzen dituzte, gu engainatuz.

Pertsona askok komunita-tearekiko erabateko berdinta-suna bilatzen dute, parekotasun horrek inklusibitatea sentia-razten duelako, eta nork ez du nahi (nahiz eta inkonszienteki izan) talde baten hegalen arte-ko babesean egon? Beraz, hori baliatzen dute enpresek beraien alde. Beste modu batera esanda, adibidez, guztiok arropa gorria janztea bultzatuko balute, giza talde handi bati uste eta premia faltsu bat sortuko lieke: gorriz janzteak poza dakarrela: hortaz, arropa gorria erosten bukatzen dute. Gainera, modan jartzen diren produktuak, ez dira ba-tere merkeak, noski, ahalik eta etekin gehiena ateratzea baita dirudunen helburua, haientza-ko zoriontasuna lortzeko biderik

errazena eta eraginkorrena di-rua da eta.

Are gehiago, horri jarraiki, noizbait entzun duzu “ame-rikar ametsa” zertan datzan? AEB kapitalismo hutsa dagoen herrialde bat izateagik da eza-gun, neoliberalismoaren etxea. Orain dela hainbat mende euro-parrak Ameriketara joan ziren arrakastaren bila, “mundu be-rrri bat” sortu nahian, proiektu handiak eta diru masiboa. Eta amerikar garaikideek beraien arbasoen ideiak heredatu dituz-te. Hain aipatua den “amerikar ametsa”-ren arabera, egunero lan gogorra egiten baduzu, zure jatorri sozial edo ekonomikoa edozein dela ere, arrakasta, opa-rotasuna eta zoriontasuna lor ditzakezu. Guztioi datorkigu bu-rura ideia horrekin bat datorren argazki bera: gizon diruduna, kotxe berri eta etxe handiare-kin, emazte ederra, alaba, se-mea eta golden retrieverarekin.

Nahiz eta teoria hori ameri-karra izan, gure gizartean ere ezarri da; zoriontsu eta arrakas-tatsuak izateko, hau da, dirua lortzeko lan ordu onartezinak pairatuz, haien mailara iritsiko garela egunen batean, inoiz iri-tsiko ez den egunen batean. Zo-ritzarrez, egunero gustatzen ez zaigun (edo bai) lan batean 6-8 ordu iraunez eta lortutako di-ruarekin behar ez ditugun gau-zak erosiz, horrekin pozik biziko garela ezarri digute. Zentzuga-bea dirudi, eta hala da, baina, hala ere, denok bukatzen dugu nahigabe hori sinesten.

Ondorioz, agian ez zatoz bat

orain aipatuko dudanarekin, baina, nire ustez, zoriontasuna ematen diguten benetako gau-zak beste batzuk dira. Entzun adi, amazoneko paketea iriste-rakoan pozik jartzen gara, bai, baina mendira joaten zarenean loreak usaitzera, sentimendu hori zer?

Poza eta sentimendu gehie-nak hormonek kontrolatzen dituzte. Serotonina, oxitozina, dopamina eta endorfinak dira erreginak. Sare sozialetan ibil-tzerakoan edo erosketak (batez ere inpultsiboki egiten ditugu-nak) dopamina “txute” hutsak dira, erraz lortzen direnak, zo-rion artifiziala. Droga bat bezala funtzionatzen dute, horregatik hainbesteko mendekotasuna. Baina, naturan egoteak, maite duzun pertsonaz inguratzeak edo asko gustoko duzun zerbait egiteak beste zoriontasun mota bat sorrarazten dizu, natura-lagoa. Ez da hori benetan nahi duguna?

Maite dituzun pertsonak, harremanak... Pentsaera sozial garaikidean, diruaz gain, beste garrantzizko kontzeptu bat eza-gutzen da zoriontasunarekin lotuta, kontzeptu hunkigarria bezain polita, fidagarria baina traidorea: maitasuna eta sexua. Bereziki nerabezaroan, harre-man erromantikoak eta eroti-koak edukitzeko lehiaketa bat dago, presio sozial ikaragarria. Gazte askok, lehiaketaren de-sesperazioan, gauero webgune pornografikoetan sartzen dira, zoriontasun nahian. Ez dakite-na da (edo bai, baina ezin dute edo ez dute utzi nahi), hori ere dopamina “txute” ziztuak dire-la, eta, horregatik, gero “disfo-ria postkoitala” pairatzen dute, hau da, emozionalki mendi-tontorretik beheraldera joaten dira bat-batean. Neurozientzia eta psikologiak dioenez, gehie-gizko pornografia kontsumoak garunaren eskuineko lobuluko materia grisaren bolumena txi-kitzen du, non adimenarekin lo-tutako neurona ehunak dauden.



Beraz, materia grisaren mu-rrizketa horrek ikaskuntza eta memoria bezalako funtzioetan eragina izan dezake.

Beste batzuk, aldiz, ez dute loturarik nahi. Gauean atera eta zoriona aurkitzeko, haren ehiza prestatzen dute. Esandako guz-tiaren nahasketa bat. Mozkortu, diru asko gastatu, gaueko rolo bat bilatu, piti bat erre edo ma-rra bat sudurretik sartu eta hu-rrengo egunean, guztiz damu-tuak. Argi dago goibeltasunari ihes egitea ez dela zoriontasuna lortzea.

Egia esan, ongi pentsatzen baduzu, orain arte aipatu dudan guztia hormonak besterik ez dira izan, eta haiengan dauka-gun mendekotasuna. Zoritxa-rrez, gaur egun halakoa da zo-riontasuna, hormona bat, droga bat, denok ezin utzirik gaudena. Bizi-poza lortzeko bideak sal-tzen dizkigute, eta gutako askok sinetsi, ekin eta gaizki bukatzen dugu. Ez da berdina gauza batek eragindako momentuko zorion-tasuna edo orokorrean zorion-tsu izatea, zoriotsu bizitzea.

Horretaz gain, garantzitsua da aipatzea plazerra zoriontasu-narekin nahasten dugula.

Ezinezkoa da “plazerrean bi-zitzea”, aldiz, zaila den arren, zo-riontasunean bai. Zoriontasuna bidelagun edukitzea erabakitzen

duenak, ardura bat hartzen du. Poza ez dela beti bere alde egongo jakin behar du, hau da, batzue-tan gaizki sentituko dela, baina horrela sentitzea bizitzaren fase bat dela eta ez betirako zerbait. Are gehiago, hori onartzeak on-doren poza osasuntsu sentitzera ahalbidetzen zaitu. Zure burua-rekin harreman on bat eduki-tzeko tresna bikaina da.

Beraz, non geratu da zorion-tasunaren harremana arimare-kin? Oso ondo dago zientziak au-rrera egitea eta froga enpirikoak aurkitzea, baina garai honetako gizartean mistizismo falta su-matzen dut. Agian, poztasuna beste gauza batzuekin lotzea lortuko bagenu, konturatuko gi-nen eta ulertu, noski, zoriontsu izatea helburua dela, denok lor-tu nahi dugun helburua, baina era azkarrak eta txapuzeroak ez direla inoiz baliagarri. Asperdu-ra, haserre edo tristura, emo-zio desatseginak izan daitezke, baina ez dira txarrak, bakoitzak bere funtzioa du eta onartu egin behar ditugu. Agian momen-tu honetan gaizki pasatzen ari zara, baina gaizki pasatze hori ez da sekulan betirako izango, nahiz eta hala dirudien; osota-sunari begiratu behar diogu.

Egilea: Eider Iradi Diez
1. Batxilergoa

MIÑAN (antzezlan)

2024ko azaroroaren 26an Her-nani BHIko Institutuko Batxi-lergoko 1 eta 2.mailako ikasleok Hernaniko Biteri Kultur Etxera joan ginen “Miñan” antzezlan ikustera.

«Miñan» benetako kronika bat da, Baldek berak kontatua eta Amets Arzallus (Hendaia, 1983) bertsolari eta idazleak ja-soa. Liburu hau 2019an argita-ratua izan zen eta 2024. urtean Artedrama konpainiak moldatu du antzerkirako.

Ibrahima Balde (Konakry, 1994) Ginean jaio zen, baina egun batean, amaren deiak etxea utzi eta anaia txikiaren bila Europarantz joatera behar-tu zuen. Horretarako, basamor-tua zeharkatu behar izan zuen. Odisea horretan, poliziakidee-kin, bahitzaileekin eta pasatzai-leekin topatu zen; eta minaren, egarriaren eta gosearen sufri-mendua sentitu zuen.

Ibrahima Balderen bizitza-ren kronika da antzezlan hau,

hark ahoz kontatua, Amets Ar-zallusek idatziz jaso, eta Ar-tedramak antzerkira egokitua. Ibrahima Balderi aita gazterik hil zitzaion, eta ikasketak moz-tu behar izan zituen. Orduan Liberiara lan bila joatea burura-tu zitzaion eta Monroviara joan zen. Hasieran zamak bizkar gai-nean garraiatzen ibili zen baina halako batean Gineako kamioi-zale batek laguntzaile hartu zuen. Bitartean Ibrahimaren anaia txikiak amaren etxetik alde egin zuen eta Libian zegoe-la jakin zuen amak. Anaia txi-kia desagertu eta gero, Ibrahima

anaiaren bila abiatu zen Ginea-tik Libiara, horretarako Sahara-ko basamortua zeharkatu behar izan zuen hegoaldetik iparral-dera: pasatzaile, polizia, bahi-tzaileekin topo egin zuen bide luze eta gogor hartan, non ega-rria, gosea eta batez ere mina ezagutu zituen.

Aurretik aipatu dugun mo-duan, antzezlan honek, libu-ruan du oinarria eta guk iaz, 1. Batxilergoan, irakurri genuen eta aurrean antzokian ikusteko aukera izan dugu. Antzezlan ederra iruditu zitzaigun, istorioa gogorra eta interesgarria izateaz

gain, oso ondo antzeztua baitze-goen parte hartu zuten lau akto-reen aldetik; aktore hauek Sam-bou Diaby, Ander Lipus, Eihara Irazusta eta Mikel Kaye dira. Gure iritziz, Ibrahima Baldek bizitzan zehar jasan beharreko sufrimendu eta zailtasun guz-tiak ongi islatzen dira antzezlan honetan, ikusleari migrazioa eta injustizia bezalako gaiekin empatizatzea lagunduz.

Egileak: Jera Agirre Lizeaga, Iraia Mujika Aristegi eta Nahia Callejon Gomez
2. Batxilergoa



Zaintza

Bakoitzaren bizi esperientzien, baloreen eta heziketaren arabera da bakoitzak hitz honi hartzen dion zentzu eta testuingurua.

Egoera pertsonal ezberdin asko dauden moduan, zaintzak har ditzakeen esanahien kopurua ere handia da. Asko izango dira zaintza hitza more kolorekoa entzuten dutenak, aldarrikapen edo zapalkuntza gisa. Baita gurpildun aulki baten ondoan irudikatzen dutenak ere, zaintza hitzaren esanahi bakarra gurpildun aulkiak gidatzea izango balitz bezala. Zaintza hitza etimologikoki latineko cogitare hitzetik omen dator, zeinak pentsatu esan nahi duen. Hitz honen jatorri honekin bururatzen zaidan lehenengo gauza, zaintzearen ekintzaren atzean hausnarketa bat dagoela da, hau da, norbait, geure burua edo pertsona bat ez den zerbait zaintzen hasi baino lehen sortzen zaizkigun galderei erantzutean egiten dugula zaintzarik puruena. Esango nuke galdera sorrarazten digun lehenengotarikoa zalantza arrazola edo helburua dela. Zerbait zaintzen has-teko hainbat arrazoi eta helburu egon daitezke, askoren kasuan dirua den bezala, beste askoren kasuan maitasuna izango da, etorkizuna planifikatzeko modu bat edo osasun kontu bat. Nik nire bizi esperientzien, baloreen eta heziketaren arabera hitz honi hartzen diodan zentzu eta hausnarketa egingo dut. Kontuan hartzekoa da, nire bizi esperientzia asko nire aitona-amonekin igarotakoak direla, nire baloreak

nire aitona-amonen hitzekin zipliztinduta daudela eta nire heziketaren arduraren zati bat nire aitona-amonen izan dutela.

Azken esaldi horrekin, adindunen zaitzaren inguruan mintzatuko naizenaren itxura eman dezakeen arren, zati batean aitona-amonengandik jasotako eta betiko iraun dezakeen zerbaiten zaintzaz ari naiz. Bizirauteko gure zaintzaren beharra duen zerbaitetaz. Kultura eta hizkuntza dira nire ustez gure zaintzaren premia duen hori. Kultura eta hizkuntzaz orokorrean hausnartu dezakedan arren, euskal hizkuntza eta kulturaren zentratuko naiz, modu pertsonalagoan hitz egin dezadan. Aitonak maiz kontatutako frankismo garaiko istorioak izan dira orain hitzkuntza honen biziraupena bermatzeko dudaren garraren txinparta.

Hizkuntza eta kulturaren zaintzaren inguruan hausnarketa eta ondorio garbiago bat lortu ahal izateko, denbora leerro baten gisan planteatuko dut hausnarketa. Iraganarekin hasita, aitona-amonen kontatu ditudanaren arabera hausnartuko dut. Euskara erabiltzeagatik zigortuak izan diren bakarrak izan dira, momentuz guren aitona-amonak eta hala ere, beraien hezitako belaunaldia, euskal hizkuntza eta kulturaren alde gehien borrokatu duena

dela esaten ausartuko nintzateke. Honek, gauza bat argi uzten du, jazarpenak ez du zertan jazarri nahi duen hori jazartzea lortu, zapaltzeko asmoa zuen hori suspertzea ere lor dezake. Amonaren hitzetatik dakit, eskolan euskaraz hitz egitearen zigorra zela koadernoan «no hablaré más en vascuence» esaldia mila aldiz idaztea. Hala ere, horrek ez zituen amona eta bere senideak euskaraz hitz egiten uztera bultzatu, jazartzen zituzten jende, hizkuntza, kultura eta herri hori gorrotatzera bultzatu baizik. Haiek, modu batera edo bestera, lortu zuten gaur egun sufritzen ari den hizkuntza hau bizirik mantentzea eta haien esfortzu eta lanak alferrikakoak izan ez zirela demostratzeko jarrait behar dugu euskal kultura eta hizkuntzaren bidea eraikitzen.

Iraganetik orainaldira dagoen aldaketa, borrokaren parte izatetik gutxi batzuek nola borrokatzen duten begiratzera dagoen aldaketaren antzeko edo berdina dela esango nuke. Iraganean, orain dugun guzti hau mantendu eta sustatzeko antolatutako bitartean, gaur egun, guretzako mantendu duten hori nola galtzen den ikusten ari gara. Badaude, arazo honen baitan arduratzen garenon esperantza loratzen den uneak ere, baina azkar ihartzen diren loreak dira, kalera irten eta zeure sentitzen ez duzun herri bat ikusi bezain pronto ihartzeko direnak. Azkenekoz, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finalean izan zen, euskal kultura eta hizkuntzak etorkizuna ziurtatua duela sentitu nuenean. Aitak esan zidan: «Kontuatu, hemen dauden guztik bakitela euske-

raz, seguro». Hala ere, datuei begiratu besterik ez da egin behar, ohartzeko, arratsalde hartan Illumben zeudenek euskaraz jakiteak gauza gutxi ziurtatzen dituela biharamunean. Sei mila bostehun pertsona izan ginen bertan, hamaika mila sartzen dira Illumben eta zazpiehun eta hogeita sei mila biztanle gara Gipuzkoan. Zazpiehun mila pertsona falta ziren (baikortasunez hogeita sei mila biztanle kendu ditut, komunikabideetan ikusi zutenengatik eta arazoren batengatik ikusi edo entzun gabe geratu ziren horiengatik). Honekin esan nahi dudana bakarra, euskaldunon nortasuna hiltzen ez uzteko gauza asko aldatu behar direla da, baina etorkizun ez hain urrun batean garen bezalakoak izaten jarraitzeak merezi duela argi dago.

Azkenik, etorkizuna. Etorkizunaz ez dago ziur hitz egiterik, beraz, espero eta imajinatzen dudana esatea besterik ez zait geratzen. Okerrenean jarrita, euskaldunok euskaldun, izenez besterik ez garen etorkizun bat imajinatzen dut, non, euskaldun izaten jarraitzeko arrazoi bakarra ezezagun batek hizkuntza arrotz batean idatzitako garai batean izan zen Euskal Herriaren historia den. Aspal-ditik euskaldunon barnean dirau beldurra da gure nortasuna galtzearena eta beldur horrek zuzendu ditu askotan gure historiaren zati diren gatazkak. Niretzat etorkizuna den hau, jende askorentzat oraina da, ezdu bere sentitzen euskara, ez ditu bere sentitzen euskaldunon ohiturak, ez ditu errespetatzen euskaldunon historia eta jatorria. Onargarria da, nik ez dut neure sen-

titzen gaztelania, ez ditut neure sentitzen espainiar ohiturak eta ez ditut errespetatzen espainiar historia eta jatorria. Onargarria den arren, ez da ulergarria, izan ere, Onintza Enbeitak dioen bezala, euskara da munduko leku honetan mendeetan egon den bizitzeko modua ondoen esplikatzen duen hizkuntza, eta ulergaitasun horrek sortzen dizkit galderak, ulergaitasun horrek hartzen du nire pentsamenduen zati handi bat, ulergaitasun horrek sorrarazten dit sentitzen dudana minaren zati bat. Bestalde, baikortasunez ere begira daiteke etorkizuna, non, euskal hizkuntza eta kulturak beraien lekua hartu duten eta ez dagoen hauentzat mehatxu izan daitekeen arazorik bistan.

Lehen esan bezala, aitona-amonengandik barneratu dut euskal hizkuntza eta kultura zaintzen jarraitzeko grina. Denok aurki dezakegu arrazoi bat edo beste lortu nahi dugun hori lortzeko, kasu honetan, euskaldunon harrotasunaren arrazoi den hau, gure ondorengoei ahalik eta garbier oinordetzan uztea. Errazagoa da zerbait lortzea, atzean, barneak mugiarazten dizkigun helburu eta arrazoi bat badugu. Euskaldunoi, euskal kultura eta hizkuntzaren zaintzak sorrarazten dizkigun arrazoi eta helburuak asko dira, justizia nahitik, mendeku gosera aitona-amonen istoriotatik, seme-alaben zoriontasunera, bildakoen memoriatik, bizien nortasunera.

Egilea: Olaia Lete Goñi
1. Batxilergoa

Askatasuna & segurtasuna

Askatasuna eta segurtasunaren arteko harremanak lotura handia du; ondorioz, hauen arteko oreka eztabaidatua izan da film eta telesail batzuetan, Black Mirror-en adibidez.

Gatazka hau, klasean ikusita-ko irudiak oso ondo islatzen du. Bertan ikus daiteke, segurtasuna handitzen doan heinean, askatasuna murrizten dela. Izan ere, askotan ez dakigu muga non dagoen eta zenbateraino kentzen digun babesak askatasuna. Beraz, zeinek du lehentasuna, askatasunak edo segurtasunak? Alde batetik, segurtasunak arriskuen aurrean babesa eskaintzen digu, gertaera latzak aurreikusi edo eragotziz. Horren adibide argia dugu bizikletan ibiltzeko garaian kaskoa janztea, eroriz gero gorputzeko zati oso garrantzitsu bat (burua) babesten baitu. Gainera, Thomas Hobbes filosofoak esan ohi zuen

bezala, “homo homini lupus”, gizakia otsoa da gizakiarentzat. Horrekin, gizartean legeak ezinbestekoak direla azaldu nahi du, araurik gabe mundu kaotiko batean biziko ginatekeela, alegia. Beraz, segurtasunik gabe arrisku gehiegi egongo lirateke, eta ezin izango ginateke lasai bizi. Hala ere, segurtasun gehiegirekin kartzela bihurtuko litzateke gure bizitza, edozer gauza egiteko mugatuta egongo ginatekeelako. Gainera, ez genuke errealitatea den moduan ezagutuko, Arkangelen Sarari gertatu zaion moduan. Bestalde, askatasunak, gure bizitzari pribatutasuna ematen dio, baita euforia puntu bat ere,

gauza asko egiteko libre baika-ra. Esate baterako, erabakiak libreki hartzeak, iritzi propioak garatzen lagun gaitzake, pixkanaka guk geure bizitza bideratu ahal izateko. Bertatik Kant filosofoaren esaldia “sapere aude”, ausartu zure kabuz pentsatzera. Hala ere, gu gara geure erabakien erantzule, ondorioz, ardu-raz jokatzeko ezinbestekoa da, hartutako erabakien alde positibo zein negatiboak kontsideratu behar dira, alegia. Bestela, mundu kaotiko eta desordenatu batean biziko ginateke, etengabe arriskuei so, Hobbes filosofoak azaltzen zuen moduan. Hau guztia esanik, nire ikuspuntutik, ez da bat bestea baino garrantzitsuagoa, ez da bat bestearen menpekoa. Pertsonalki, bien arteko oreka egoki bat beharrezkoa dela iruditzen zait. Izan ere, bakoitzak bere aldetik gauza positiboak baditu ere, ondorio negatiboak pisuzkoak izaten jarrai-



tzen dute; eta hau konpontzeko modu bakarra, bien arteko fusio bat egitea izango litzateke. Hau islatzeko modurik hoberena, adibide baten bitartez da: demagun armak ez daudela debekatuta eta edonork eros ditzakeela, askatasun osoz. Pertsona batek pistola bat erostea erabakitzen du eta eskola batean tiroka hasten da; izan ere, ez zegoen legerik hori

eragozten zuenik. Kasu honetan askatasuna izatearen ondorioak negatiboak izan dira. Horregatik, iruditzen zait oreka bat mantentzea ezinbestekoa dela, irudian ikusi dena ez gertatzeko; hau da, segurtasunak askatasuna ez jateko, edo alderantziz. **Egilea: Enara Querejeta Iraolagoitia 1. Batxilergoa**

Itxaro bordarekin topaketa literatura unibertsalean

Itxaro Borda, 1959ko martxoaren 29an Baionan jaioetako euskal idazlea, azken hamarkadetakoko euskal literaturako idazlerik esanguratsuenetakoa bihurtu da.

Bere ibilbidea 1974an hasi zen, Herria aldizkarian bere lehen poema argitaratu zuenean, eta ordutik hona, bere lan poetikoak, narrazioak, prentsan kolaborazioak..., euskal literaturaren erreferenteak izatera iritsi dira. Poema sorta ugari argitaratu ditu eta hainbat sari irabazi ditu, aurtengo otsailean Bilboko Gutun Zuria saria eman berri diote Leila Guerreiro idazle argentinarrarekin batera. Martxoaren 12an elkarrekin igaro genuen saioan hainbat jarduera interesgarri egin genituen Literatura Unibertsaleko ikasleok, poesiari buruz hitz eginez. Lehenik eta behin, Itxaro bera ezagutzeko aukera izan genuen: bere bizitza, ibilbidea eta inspirazio iturriak azaldu zizkigun. Ondoren, haiku poesia labor japoniarren berri aurkeztu zigun, eta azalpenen bidez, poesia mota horren ezaugarriak ulertzen lagundu zigun. Haikuak, hiru bertsoz osatutako poema laburrak dira, eta gehienetan naturarekin edo eguneroko bizitzako une bereziekin lotura estua dute. Japoniatik datorren poesia forma honek laburtasunaren eta irudimenaren indarra erakusten

du, eta emozioak modu finean adierazten ditu. Guk, ikasleok, geure haikuak sortzeko aukera izan genuen, sormen lana landuz eta norberaren barruko sentimenduak eta behaketak hitzen bidez islatuz. Saioa laburra izan zen, baina oso aberasgarria. Kalitatezko denbora partekatu genuen, bai poesiaren gaineko ezagutza handituz, baita gure sormen gaitasunak garatuz ere. Horrez gain, solasaldi atseginak eta gertukoak izan genituen Itxaro Bordarekin, bere izaera xume eta hurbilak giro goxoa sortu baitzuen. Zalantzarik gabe, esperientzia berezia eta inspiratzailea izan zen, literaturaren bidez gure adierazpen gaitasuna lantzeko eta Euskal Herriko idazle handietako baten presentziaz gozatzeko aukera izan genuen. Eskerrik asko Itxaro zure jakinduria partekatzeagatik. **Egileak: Nahiane Odrizola Senperena eta Irene Zelarain Rojo 1. Batxilergoa**

